


Inauteriak... badatoz!

Inauteriak, inauteak, aratusteak... izen bat baino gehiago geure burua mozorroz janzteko garaia izendatzeko. Musika, dantza eta otorduak protagonista izango dira egun zoro hauetan Euskal Herriko txoko askotan. Jaiak aitzakia hartuta, Euskal Herrian inauteriak noiztik eta nola ospatzen diren aztertuko dugu jarduera honetan.



1- Inauteri, aratuste ala inaute?

Inauteriak urtarrilean ospatzen hasi baginen ere, otsailean izango dira nagusi Euskal Herri osoan. Hasteko, jai hauen inguruko hiztegiari helduko diogu:

Nola izendatu behar ditugu jaiak? Eta mozorroak?

Disfrazarse/se: 1.- mozorrotu, 2.- mozorro-jantzia ipini, 3.- maskaratu, 4.- desgisatu, 5.- mozorroz estali, 6.- mozorrotuta ibili, 7.- mozorro jantzian ibili.

Disfraz: 1.- mozorro, 2.- mozorro-jantzi, 3.- txantxo, 4.- zamo

Jaiak izendatzeko lau aukera eskainiko dizkizugu, ordea. Zuzenak al dira denak? Esan zein bai eta zein ez.

Aratusteak / Ihauteiak / Inauteak / Inauteriak / Iñauteriak

Hurrengo esaldi hauetan hainbat hutsune aurkituko dituzu. Bete itzazu modu egokian lehen landutako hiztegia kontuan hartuta:

itsaslapur mozorrotua / mozorro beldurgarriak / mozorropean / inauteri giroan / desgisa / mozorrotua / inauterietako / mozorro-jantzia / mozorroz estali / inauterietako mozorroak

- 1- _____ saltzen dituzte nire etxe ondoko denda batean.
- 2- Aurpegia, _____ zuen Jonek inork ezagut ez zezan.
- 3- _____ ibili zen Tolosan.
- 4- _____ zegoelako ez nuen ezagutu.
- 5- _____ jarri behar da festa horretan parte hartu ahal izateko.
- 6- Zuhaitz-azalekin eginiko _____ jartzen dituzte zenbait lekutako inauterietan.
- 7- _____ estalia zeraman aurpegia eta horregatik ez nuen ezagutu.
- 8- Astebete ematen dute _____ hainbat herritan.
- 9- Zertarako _____ nork bere aurpegia?
- 10- Haur txikiak beldurtu egiten dira batzuetan _____ mozorroekin.

2- Zer dakizu inauteriei buruz?

Inauteriek denboran zehar izan dituzten aldaketen berri ematen duen testua irakurriko duzu. Jarraian, ondoko baieztapenak EGIA ala GEZURRA diren erabaki.

Inauterien inguruan

Gaur egun, tradizio katolikoa duten lurraldeetan, garizuma aurretik egiten diren festa-egunak dira inauteriak, bereziki hausterre-egunaren aurreko igande, astelehen eta asteartean.

Ez da beti hala gertatu, ordea. Izan ere, jai hauek ospatzen hasi zirenean, gaur egun udaberria den garaian egiten baitziren. Garai horretan hasten zen urte berria, eta ez orain bezala, urtarrilean. Horrela, urte zaharra bukatu eta berria hastea ospatzen zen jai hauekin.

Olentzero, Miel Otxin, Zanpatzar eta beste hainbat pertsonaia erre egiten ziren, urte zaharraren kutsadura kendu, garbitu egin behar baitzen.



Erdi Aroan, berriz, Eliza naturaren gainetik jarri zen eta inauterien zentzua aldatu egin zen. Elizak Bazkoari eman nahi izan zion garrantzia, hau da, Kristoren Pizkundeari. Udaberrian jarri zuen Pazko-eguna, eta inauteriak garizuma aurreko garaira pasa zituen. Horregatik, gaur egun inauteriak ez dira ez urte hasieran, ez eguzkiaren ez ilargiaren egutegian ospatzen, urte hasiera bien tartean baizik. Egunak aldatzeaz gain, Elizak inauteriak berak ere aldatu egin zituen lege gogorak ezarriz. Jaiaren aitzakian gertatutako gehiegikeriak ez zituen, nonbait, begi onez ikusten.

Espanian inauteriak ofizialki debekaturik egon ziren Francoren diktadura garaian. Ondorioz, inauteriek Eliza bera satirizatu izan dute, jasan izan duten errepresioari nolabait erantzunez. Gaur egungo inauterien zentzu orokorra liberazioarena da. Zenbait lekutan aspaldiko elementu sinbolikoak gorde dituzten inauteri folklorikoak ospatzen dira eta beste zenbaitetan, berriz, hiriko inauteri moderno bihurtu dira. Beraz, denboran zehar inauteri-egun hauen zentzua aldatu egin da. Hala ere, hainbat eta hainbat herritan garai bateko pertsonaiak eta ohiturak mantendu egin dira.

Inauteriak beti ospatu izan dira garizuma aurretik.

- Egia
- Gezurra

Garai batean urte berriaren hasiera ospatzen zen inauterietan.

- Egia
- Gezurra

Aldaketa handiak gertatu ziren ospakizunetan Erdi Aroan.

- Egia
- Gezurra

Diktadura garaian galerazita egon ziren inauteak.

- Egia
- Gezurra

Inauterien zentzua eta ohiturak erabat aldatu dira denboraren poderioz.

- Egia
- Gezurra

3- Inauteriak Euskal Herrian herriz herri.

Asko dira inauteak modu berezian ospatzen diren lekuak Euskal Herri osoan. Hori horrela, aukeraketa bat egin behar izan dugu eta ondorioz, lurralde bakoitzetik adibide bakar bat ekarri dugu orrialde hauetara. Ondorengo testuak irakurri eta gero hainbat ezaugarri izango dituzu. Jar ezazu bakoitzaren ondoan zein lurralderi dagokion.



1.- Zuberoako maskaradak

Zuberoako maskaradak urtearen hasieratik astearte-inauteri eguna bitartean ospatzen dira. Egun eta herri ezberdinetan eskaintzen dute funtzioa eta ospakizunen elementu nagusiak dantza eta antzerkia dira. Maskaraden antzezpena egun osoan zehar luzatzen da eta urtero-urtero herri ezberdin bateko herritarrek prestatzen dituzte.

Parte hartzen duten pertsonaiak bi taldetan banatuta daude: gorriak eta beltzak. Lehenengoak, garbi eta dotore jantzita daude eta gorria da euren arropetako kolore nagusia. Talde honetakoak dira *Txerrero*, *Artzaina*, *Gatuzain*, *Kantiniarsa*, *Zamaltzain*, *Zikiratzaileak*, *Ferratzaileak*, *Kukulleroak*, *Jaun eta Anderea*, *Laboraria* eta *Etxekoandrea*.

Gorrien taldearen ondoren musikariak joan ohi dira eta hauen atzetik, berriz, beltzak. Zarpain eta zikin janzten dira talde honetakoak: *Ijitoak*, *Berzkinak*, *Zorrotzaileak*, *Eskaleak*...

2.- Nafarroa Behereko inauteriak

Nafarroa Behereko inauteriak Euskal Herriko luzeenak dira, maiatzera arte irauten dute eta. Inauteri hauetan *Kabalkada* izeneko desfilea da ekitaldirik garrantzitsuenak. Bertan hainbat pertsonaiak hartzen dute parte. Ezagunenak eta ikusgarrienak *Bolantak* dira. Lepotik zetazko koloretako zintak zintzilikatuta daramaten dantzariak dira eta desfilearen amaieran joan ohi dira. *Zaldikoak* dira lehenengo joaten direnak. Zaldi gainean joaten diren bizpahiru mutil izaten dira. Hauen ondotik *Zapurrak* doaz, bizarra beltza eta betaurreko beltzak jantzita dituztela. Ondoren, bat, bi edo hiru *Makilari* joaten dira: bola batean amaitzen den makila luzea daramate eskuan. Atzetik, *Erraldoitxoak*, bi emakume argal, luze eta fin irudikatzen dituzten panpinak. Bi dantzarik eramaten dituzte sorbalda gainean. Hauen ondoren beste bi dantzari joaten dira: *Gorriak*. Desberdin jantzita joaten dira, besteen nagusi edo gidari direlako. Ondoren, *Banderariak* doaz, bat edo bi, eskuan banderak dituztela. *Basandreak* doaz hurrena eta azkenik *Bolantak*.

3.- Lapurdin, Ustaritzeko inauteriak

Lapurdikoko herri honetan *Kaskarot* eta *Zanpantzar* egunak dira inauteri-egunak. Kaskarot eguna bi igandez ospatzen dute: Igande-inauterian eta horren aurreko igandean. Etxez etxe diru-eskean, jan eta edaten eta etxeetara sartuz ibiltzen dira inauteri hauetako pertsonaiak. *Kaskarot*, *Ponpiera* eta *Kotilungorriak* dira ezagunenak. Pertsonaia hauek haurrak izutzen ibiltzen dira eta etxeetara emandako eskudirua ere biltzen dute. Guztiak sei orduz ibiltzen dira etxez etxe, eta ondoren, txokoren batean biltzen dira jasotakoa jatera. Astearte-inauterian, berriz, Zanpantzar (Saint Pansart) agertzen da gurdi batean Ustaritzeko kaleetan zehar. Lastoz betetako panpina handia da. Herrian zehar ibili ondoren epaitu, kondenatu, fusilatu eta erre egiten dute.

4.- Gipuzkoan, Tolosako inauteriak

Tolosako inauteriak oso famatuak dira Gipuzkoan. Ez dira herri txikiak inauteriak bezalakoak, hiri handietakoen antza dute. Izatez, igande-inauteri egunean hasten dira eta asteartera arte irauten dute. Hala ere, aurreko hiru egunak, hots, ostegun gizen, ostiral mehe eta zaldunita-bezpera prestaketa-egunak izaten dira. Txilabak, txarangak, danborrada, zezenak, dantzak, musika eta umorea izaten dira egun hauetan Tolosan. Asteartean aldatzen da giroa, egun hori hileta-eguna izaten baita. Sardina ehorzten dute eta hari lagunduz, lutu-jantziz mozorrotzen dira tolosarrak. Amaiera triste honek ematen die bukaera musikaz eta festaz betetako bost egunei.

5.- Bizkaian, Mundakako aratusteak

Mundakako aratusteetan mutil eta gizonak izan dira protagonista orain arte, nahiz eta azken urteotan emakumeen partehartzea handitu egin den. Musika joz eta abestuz ateratzen dira kalera igande-inauterian. Zuri-zuri jantzita joaten dira guztiak, musika-bandaren zuzendaria izan ezik. Frak beltza eta kolore bereko kapela janzten ditu honek. Musikariek zapia janzten dute buruan, batzuetan aurpegia bistan utzita eta beste batzuetan aurpegia estalita. Aurpegia bistan daramatenek bibote eta papilote handiak margotzen dituzte aurpegian. Bi gona janzten dituzte, bata ohi bezala eta bestea burutik sartuta, atorra balitz bezala. Horregatik deitzen zaie *Atorrak*. Herriko kaleetan kantatzen jardun ondoren, portura abiatzen dira zuzendariaren gidaritzapean. Han, petril gainera igo eta banan-banan ilaran jartzen dira, ekitaldirik ederrena bertan burutuz. Urtero asmatzen duten kanta berria abesten dute, eta horrekin batera aurreko urteetako abestiak ere bai. Mundakako emakumeak lehen mozorrotzen ez baziren ere, orain lamiaz jantzita ateratzen dira herriko kaleetara.

6.- Araban, Zalduondoko inauteriak

Arabako herri honetan igandean hasten dira inauteriak eta *Markitos* da pertsonaia nagusia. Traje beltzez jantzitako panpina da, gorbata daramana eta lorea botoi-zuloan. Arrautz oskolez egindako lepokoa darama. Pertsonaia berezi eta misteriotsua da *Markitos*. Igande-inauteri goizean, goizeko 11:30ean agertzen da herriko kale nagusian asto baten gainean. Herriko mutil edo gizon bat joaten da asto gainean, *Markitos*en atzean berari eusten, eror ez dadin. Astoa horretarako prestatutako toki bateraino gidatzen dute, jauregi baten aurreraino. Han, *Markitos* astotik jaitsi eta sei metro luze den makila baten puntan jartzen dute. Makila zutik jartzen da, lurtean sartuta eta bere goiko aldean geratzen da *Markitos* zenbait orduz. Denbora hori igaro ondoren, *Markitos* jaitsi eta gurdian jartzen dute. Pilotalekura heltzen direnean bere epaia irakurtzen dio *Predikadoreak Markitosi*: hil egin behar du. Jendeak txalo egiten du. Panpina lurtean jarri eta su ematen diote. Taldeko guztiek egiten dute dantza bere inguruan.

7.- Nafarroan, Lantzeko inauteriak

Astelehen eta Astearte Inauterietan ospatzen dira inaute-egunak Lantzen. Pertsonaia nagusiak *Miel Otxin*, *Ziripot*, *Zaldiko*, *Txatxoak* eta *Ferratzaileak* dira. Festa astelehen-inauterian hasten da. *Miel Otxin* doa jendetzaren buruan. *Ziripot* traketsa, oinez egin ezinik dabil, makila baten laguntza duela horretarako. *Txatxoak* oihi eta dantza egiten dute. *Zaldiko*, *Ziripot* lurrera botatzen saiatuko da. *Ziripot* behin eta berriro eroriko da lurrera. *Zaldiko* *Ziripoti* hurbiltzen zaion bakoitzean, *Txatxoak* defendatuko dute. Halako batean *Txatxoak* *Zaldiko* harrapatzen dute eta *Ferratzaileak* ferratu egingo dute. Hurrengo egunean, Astearte Inauterian, ez *Ziripot* eta ez *Zaldiko* ez dira kaleratzen. *Miel Otxin* da egun honetako protagonista nagusia. Enparantzara eramaten da *Txatxoak* inguraturik eta han epaitu egiten dute. Tiroz hil eta lurrera botatzen dute erraldoia. Zatitu eta sua egiten dute bere gorputzarekin. Ondoren, zortzikoa dantzatzen dute suaren inguruan.

Ezaugarria	Lurraldea
Jai hauetako pertsonaia nagusia asto gainean agertzen da.	Araba
Euskal herriko inauteririk luzeenak ospatzen dira hemen.	Bizkaia
Bertan sardina ehorzten dute.	Nafarroa Beherea
Protagonista nagusia epaitu egiten dute herriko enparantzaren.	Gipuzkoa
Ospakizunen elementu nagusiak dantza eta antzerkia dira.	Nafarroa
Emakumeak lamiaz jantzita ateratzen dira.	Lapurdi
Pertsonaiak etxez etxe ibiltzen dira diru-eskean.	Zuberoa



4- Aratusteetako pertsonaia nagusiak



Aurreko testuetatik abiatuta, aratusteetako hainbat pertsonaiaren ezaugarriak berriro ekarri ditugu hona. Deskribapenak irakurri eta lot ezazu testu bakoitza dagokion pertsonaiarekin osagai bakoitzaren gainean klik eginez:

Deskribapena	Pertsonaia
Lepotik zetazko koloretako zintak zintzilikatuta daramaten dantzariak dira eta desfilearen amaieran joan ohi dira.	Gorriak
Pertsonaia traketsa da hau, oinez nekez dabilena. Makila baten laguntza izaten du.	Makilari
Panpin handia da, eta gorputza lastoz beteta dauka.	Ziripot
Bi gona janzten dituzte, bata burutik sartuta eta bestea, ohi bezala.	Bolantak
Traje beltza darama, arrautz oskolez egindako lepokoa, gorbata eta lorea botoi-zuloan.	Beltzak
Garbi eta dotore jantzita daude eta gorria da euren arropetako kolore nagusia.	Markitos
Bizarra beltza dute eta betaurreko beltzak jantzita joaten dira.	Zanpantzar
Zikin jantzita doaz eta oso zarpailak dira.	Zapurrak
Makila luzea daramate eskuan, bukaeran bola bat daramana.	Musika-bandaren zuzendaria
Frak beltza eta kolore bera duen kapela janzten ditu.	Atorrak



Jarraian, testuetatik atera ditugun pertsonaien deskribapenetan aukeraketa egokia egin behar duzu emandako bi moldeetatik egokiena zein den zehaztuz:

1. Gorriak garbi eta dotore **jantziak / jantzita** daude eta gorria da euren arropetako kolore nagusia.
2. Zarpain eta zikin **janzten / jazten** dira beltzak.
3. Bolantak dira **pertsonaiarik / pertsonai** ezagunenak eta ikusgarrienak.
4. Lepotik zetazko koloretako zintak zintzilikatuta **daramate / daramaten** dantzariak dira bolantak.
5. Zaldikoen ondotik Zapurrak doaz, bizarra beltza eta betaurreko beltzak jantzita **dituzte / dituztela**.
6. Makilariak bola batean amaitzen **den / da** makila luzea daramate eskuan.
7. Erraldoitxoak bi emakume argal, luze eta fin irudikatzen **dituzte / dituzten** panpinak dira.
8. Gorriak desberdin **jantzita / jantziz** joaten dira, besteen nagusi edo gidari direlako.
9. Banderariak eskuan banderak **dituztela / dituzte** doaz.
10. Kaskarot, Ponpiera eta Kotilungorriak dira pertsonaiarik **ezagunak / ezagunenak**, haurrak izutzen ibiltzen dira eta etxekeok emandako eskudirua ere biltzen dute.
11. Zanpazar lastoz **betetako / beteko** panpina handia da.
12. Sardinari lagunduz, lutu-jantziz mozorrotzen **dira / dute** tolosarrak.
13. Mundakan zuri-zuri jantzita joaten dira herritarrak, musika-bandaren zuzendaria izan **beste / ezik**.
14. Musika-bandaren **zuzendari / zuzendariak** frak beltza eta kolore bereko kapela janzten ditu.
15. Musikariak zapia janzten dute buruan, batzuetan aurpegia bistan **utzita / utzi** eta beste batzuetan aurpegia estalita.
16. Aurpegia bistan **daramatenek / daramatzatenek** bibote eta papilote handiak margotzen dituzte aurpegian. Bi gona janzten dituzte, bata ohi bezala eta bestea burutik sartuta, atorra balitz bezala.
17. Mundakako emakumeak lehen mozorrotzen ez **balira / baziren** ere, orain lamiaz jantzita ateratzen dira herriko kaleetara.
18. Markitos da Zalduondoko inauterietako pertsonaia nagusia. **Traje / Trajez** beltzez jantzitako panpina da, gorbata daramana eta lorea botoi-zuloan. Arrautz oskolez egindako/egina lepokoak darama.
19. Lantzeko pertsonaia nagusiak Miel Otxin, Ziripot, Zaldiko, Txatxoak eta Ferratzaileak **direnak / dira**.
20. Ziripot traketsa, oinez egin ezinik dabil, makila baten laguntza **dutela / duela** horretarako.

5- Joaldunak

Nafarroako Ituren eta Zubietan herrietan Joaldunak dira inauteriak iragartzen dituzten pertsonaiak. Jarraian ohitura horri buruzko bideoa ikusiko duzu, Ikusitakoan erantzun ondorengo galderei aukera zuzena hautatuz.



1- Iturengo joaldunak herria zeharkatu eta...

- a) Latsagakoekin Zubietan elkartzen dira.
- b) Latsaga auzoan Zubietatik datozenekin elkartzen dira.
- c) saiatzen dira Latsagara Zubietatik datozenak baino lehenago iristen.

2- Iturenen eta Zubietan inauteria...

- a) bi herriek adosten duten datan ospatzen dute.
- b) Euskal Herriko beste herrietako data berean ospatzen dute.
- c) Euskal Herriko beste herri askotan baino lehenago ospatzen dute, urtarrileko azken asteburuan.

3- Joareak estu-estu lotu behar dira...

- a) gizentasuna erakusteko.
- b) antzerki pixka bat egiteko.
- c) soinua ondo ateratzeko.

4- Joareen soinua...

- a) berdina da hotza izan ala beroa izan.
- b) aldatzen da bero badaude, edo bustita badaude.
- c) hobe da joareak bustita daudenean.

5- 2014 urtean...

- a) jende asko bildu da Iturengo plazan joaldunak ikustera, euria ari badu ere.
- b) jende gutxi bildu da Iturengo plazan joaldunak ikustera, euria egiten duelako.
- c) jende asko bildu da Iturengo plazan joaldunak ikustera, arratsalderako eguraldi ona iragarri dutelako.

6- Usadioak

Ezagutzen al duzu egutegiari, urtaroei edota solstizioei lotutako herri usadioren bat? (Agate deuna, Olentzero, San Juan suak, Errepwierre, Joaldunak, Momotxorroak...)

Zure familia-herrian ba al dago antzinetik kontserbatzen den usadiorik?

Antzinetik kontserbatutako tradizio guztiak mantendu behar dira? Ba al da gaur egun kontserbatzen den tradizio gaitzesgarririk? (Sokamuturrak, bigantxak, antzar eguna, idi probak, ahari demak, alardeak...)

Kontatu ikaskideei usadio horietako bat zertan den, ospakizun horrekin duzun eskarmentua, edota gertatutako pasadizo bat.



1- Inauteri, aratuste ala inaute?

Jaiak izendatzeko adiera zuzenak: **Aratusteak // Inauteak / Inauteriak**

- 1- (**Inauterietako mozorroak**) saltzen dituzte nire etxe ondoko denda batean.
- 2- Aurpegia, (**mozorroz estali**) zuen Jonek inork ezagut ez zezan.
- 3- (**Itsaslapurrez mozorrotua**) ibili zen Tolosan.
- 4- (**Mozorrotua**) zegoelako ez nuen ezagutu.
- 5- (**Mozorro-jantzia**) jarri behar da festa horretan parte hartu ahal izateko.
- 6- Zuhaitz-azalekin eginiko (**mozorro beldurgarriak**) jartzen dituzte zenbait lekutako inauterietan.
- 7- (**Mozorro pean**) estalia zeraman aurpegia eta horregatik ez nuen ezagutu.
- 8- Astebete ematen dute (**inauteri giroan**) hainbat herritan.
- 9- Zertarako (**desgisa**) nork bere aurpegia?
- 10- Haur txikiak beldurtu egiten dira batzuetan (**inauterietako**) mozorroekin.

2- Zer dakizu inauteriei buruz?

Inauteriak beti ospatu izan dira garizuma aurretik. (Gezurra)
Garai batean urte berriaren hasiera ospatzen zen inauterietan. (Egia)
Aldaketa handiak gertatu ziren ospakizunetan Erdi Aroan. (Egia)
Diktadura garaian galerazita egon ziren inauteak. (Egia)
Inauterien zentzua eta ohiturak erabat aldatu dira denboraren poderioz. (Gezurra)

3- Inauteriak Euskal Herrian herriz herri.

Ezaugarria	Lurraldea
Jai hauetako pertsonaia nagusia asto gainean agertzen da.	Araba
Euskal herriko inauteririk luzeenak ospatzen dira hemen.	Nafarroa Beherea
Bertan sardina ehorzten dute.	Gipuzkoa
Protagonista nagusia epaitu egiten dute herriko enparantzan.	Nafarroa
Ospakizunen elementu nagusiak dantza eta antzerkia dira.	Zuberoa
Emakumeak lamiaz jantzita ateratzen dira.	Bizkaia
Pertsonaiak etxez etxe ibiltzen dira diru-eskean.	Lapurdi

4- Aratusteetako pertsonaia nagusiak

Lepotik zetazko koloretako zintak zintzilikatuta daramaten dantzariak dira eta desfilearen amaieran joan ohi dira. **Bolantak**

Pertsonaia traketsa da hau, oinez nekez dabilena. Makila baten laguntza izaten du. **Ziripot**
Panpin handia da, eta gorputza lastoz beteta dauka. **Zanpantzar**

Bi gona janzten dituzte, bata burutik sartuta eta bestea, ohi bezala. **Atorrak**

Traje beltza darama, arrautz oskolez egindako lepokoa, gorbata eta lorea botoi-zuloan. **Markitos**

Garbi eta dotore jantzita daude eta gorria da euren arropetako kolore nagusia. **Gorriak**

Bizarra beltza dute eta betaurreko beltzak jantzita joaten dira. **Zapurrak**

Zikin jantzita doaz eta oso zarpailak dira. **Beltzak**

Makila luzea daramate eskuan, bukaeran bola bat daramana. **Makilari**

Frak beltza eta kolore bera duen kapela janzten ditu. **Musika-bandaren zuzendaria**

1. Gorriak garbi eta dotore **jantzita** daude eta gorria da euren arropetako kolore nagusia.
2. Zarpain eta zikin **janzten** dira beltzak.
3. Bolantak dira **pertsonaiarik** ezagunenak eta ikusgarrienak.
4. Lepotik zetazko koloretako zintak zintzilikatuta **daramaten** dantzariak dira bolantak.
5. Zaldikoen ondotik Zapurrak doaz, bizarra beltza eta betaurreko beltzak jantzita **dituztela**.
6. Makilariak bola batean amaitzen **den** makila luzea daramate eskuan.
7. Erraldoitxoak bi emakume argal, luze eta fin irudikatzen **dituzten** panpinak dira.
8. Gorriak desberdin **jantzita** joaten dira, besteen nagusi edo gidari direlako.
9. Banderariak eskuan banderak **dituztela** doaz.
10. Kaskarot, Ponpiera eta Kotilungorriak dira pertsonaiarik **ezagunenak**, haurrak izutzen ibiltzen dira eta etxeok emandako eskudirua ere biltzen dute.
11. Zanpazar lastoz **betetako** panpina handia da.
12. Sardinari lagunduz, lutu-jantziz mozorrotzen **dira** tolosarrak.
13. Mundakan zuri-zuri jantzita joaten dira herritarrak, musika-bandaren zuzendaria izan **ezik**.
14. Musika-bandaren **zuzendariak** frak beltza eta kolore bereko kapela janzten ditu.
15. Musikariak zapia janzten dute buruan, batzuetan aurpegia bistan **utzita** eta beste batzuetan aurpegia estalita.
16. Aurpegia bistan **daramatenek** bibote eta papilote handiak margotzen dituzte aurpegian. Bi gona janzten dituzte, bata ohi bezala eta bestea burutik sartuta, atorra balitz bezala.
17. Mundakako emakumeak lehen mozorrotzen ez **baziren** ere, orain lamiaz jantzita ateratzen dira herriko kaleetara.
18. Markitos da Zalduondoko inauterietako pertsonaia nagusia. **Traje** beltzez jantzitako panpina da, gorbata daramana eta lorea botoi-zuloan. Arrautz oskolez egindako/egina lepokoa darama.
19. Lantzeko pertsonaia nagusiak Miel Otxin, Ziripot, Zaldiko, Txatxoak eta Ferratzaileak **dira**.
20. Ziripot traketsa, oinez egin ezinik dabil, makila baten laguntza **duela** horretarako.

5- Joaldunak

1- Iturengo joaldunak herria zeharkatu eta...

b) Latsaga auzoan Zubietatik datozenekin elkartzen dira.

2- Iturenen eta Zubietan inauteria...

c) Euskal Herriko beste herri askotan baino lehenago ospatzen dute, urtarrileko azken asteburuan.

3- Joareak estu-estu lotu behar dira...

c) soinua ondo ateratzeko.

4- Joareen soinua...

b) aldatzen da bero badaude, edo bustita badaude.

5- 2014 urtean...

a) jende asko bildu da Iturengo plazan joaldunak ikustera, euria ari badu ere.